

Modèle CCYC : ©DNE

Nom de famille (naissance) :


(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)

Prénom(s) :

N° candidat : N° d'inscription :

(Les numéros figurent sur la convocation.)

Né(e) le : / /

 Liberté • Égalité • Fraternité
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

1.1

Évaluation

CLASSE : Première

VOIE : Générale Technologique Toutes voies (LV)

ENSEIGNEMENT : Basque

DURÉE DE L'ÉPREUVE : 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2** LVB **A2-B1**

Axes de programme : **Axe 7 « Diversité et inclusion »**

CALCULATRICE AUTORISÉE : Oui Non

DICTIONNAIRE AUTORISÉ : Oui Non

Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

Nombre total de pages : 3

Baccalauréat général et technologique

Basque

Classe de première

Compréhension de l'écrit et expression écrite

(3^e trimestre)

Niveau visé LVB : A2-B1	Durée de l'épreuve 1 h 30	Barème 20 points CE : 10 points EE : 10 points
-----------------------------------	-------------------------------------	---

L'ensemble du sujet porte sur l'axe 7 du programme « **Diversité et inclusion** ».

Il s'organise en deux parties :

- 1- Compréhension de l'écrit
- 2- Expression écrite

1- Compréhension de l'écrit (10 points)

Titre du document : « Auzolanaz berpizturiko EHZ »

Zein dira prentsa artikulu honek argitaratzen dituen xehetasunak? Bilduma egin ezazu, frogatzeko ulertua duzula.

Auzolanaz berpizturiko EHZ

Bihar hasi eta igandera arte, Euskal Herria Zuzenean festibala jasoko* du Irisarrik. Musika eskaintza zabalaz gain, bestelako diziplinetako ikuskizunak eta eztabaidak ere proposatuko ditu jaialdiak.

Bihar hasiko da EHZ Euskal Herria Zuzenean festibala, Irisarriko plaza inguruan (Nafarroa Beherea). Bihar irekiko ditu ateak eta bideak. Bideak, gazte talde berri batek hartu baitzuen, joan den irailean, festibala bizirik atxikitzeke engaiamendua. Geroztik, gogor ari izan dira lanean hiru eguneko hitzorduaren prestatzen, bihar hasi eta igandera arte iraunen baitu festibalak. «Auzolanaz berpiztu». Lelo hori hautatu dute aurtengo edizioarentzat. Hitzetatik ekintzetara, azken hamar egunotan Irisarri inarrosi dute hainbat antolatzaile eta laguntzailek. Dena prestatua dute, bihar jardunaldiak* hasi ahal izateko.

Larunbatarekin, EHZk garrantzi berezia emanen dio eztabaida guneari, han izanen baitira hitzaldi eta tailerrak egun osoan zehar. Bost gai hautatuak dituzte, eta horien inguruan hausnartzera bultzatu nahi dituzte parte hartzaileak; migrazioa, besta eta militantzia, G7, feminismoa eta auto-antolaketa. Gogoeta aldi horretan parte hartzeko urririk izanen dira sarrerak, eta denak iraganen dira plazan kokatua den Ospitalea etxean. Anartean, plazan izanen dira beste hainbat animazio, hala nola, Irisarriko dantza taldearen ikuskizunaz gain, bertsu poteoa, *Toi D'abord* zirku konpainiaren ikuskizuna, baita *Anari* eta *The Very Small Orquestra* taldeen kontzertuak ere. Pentzeko eszenan izanen diren emanaldiekin segituko du gaualdiak, han ariko baitira *Rodeo*, *Pelax*, *Niña Coyote* eta *Chico Tornado*, eta baita *Old School Funky Family* ere. Azpimarragarria da, beraz, aurtengo edizioan musika talde gehienak Euskal Herrikoak direla.

Igandean, azken egunean, berriz, egitarau aberatsa antolatu du EHZk. Goizetik plazan izanen dira erraldoiak, zirkuak, txarangak, baita *Ibil Bedi* taldearen kontzertu bat ere. Arratsalde hastapenean, *Transe en Danse* eta hamabi etorkinen ikuskizuna aurkeztuko dute bigarren aldiz, Ospitalean. Pentzeko eszenan hainbat kontzerturekin bukatuko da festibala, *Oihaneko Zühainetan*, *Ray Fernandez*, *Broken Brothers Brass Band*, *Willis Drummond* eta *Iseo&Dodosoundekin*.

Horrela, Irisarriko plaza elkar ezagutzeko, hausnartzeko* eta sortzeko lekua izatea dute xede, beti auzolanaz berpiztuz.

Berria - 2019ko ekainak 27 (testua moldaturik)

jaso : errezibitu

jardunaldi : ekitaldi

hausnartu : gogoetatu

2- Expression écrite (10 points)

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

A galdera

Aurtengo EHZ festibalera joan zara. Zure lagun minari email bat idatz iezaiozu han pasatu dituzun hiru egunak kondatzeko.

B galdera

Gustatuko litzazuke EHZ festibalaren antolakuntzan laguntzaile izatea ? Zergatik ? Zure iritzia emanen duzu argudioak garatuz.